

Informazio orri honen bidez zuen interesekoak izan daitezkeen hainbat berri eman nahi dizkizuegu. Gogoratu nahi dizuegu, halaber, gai hauei edo beste edozeini buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Federazioarekin harremanetan jar zaitezketela, horretarako eskaintzen ditugun bide hauei edozein erabilia: aurrez aurreko arreta, Federazioaren bulegoan, 9:30etik 17:30era, astelehenetik ostiralera; telefono bidezko arreta (tel. zk.: 943 32 72 08 / fax zk.: 943 27 49 77); edo posta elektronikoa, baikara@baikara.org helbidera idatzita.

## **1.- IGEetako ZUZENDARITZA BATZORDEAK/ESTATUTUAK**

Oro har, ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egin ohi dute IGEek beren Ohiko Batzar Orokorra. Batzar horretako ohiko puntuetako bat IGEetako Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzea izatean da. Gai honi dagokionez, gogorarazi nahi dizuegu ez dela nahikoa batzarrak batzorde berriaren osaera onartzea; alegia, osaera berriak legezko ondorioak izan ditzan, ezinbestekoa da Elkarteen Erregistroari aldaketaren berri ematea, dagokion dokumentazioaren bidez. Izapide hori BAIKARAREN bitartez egin dezakezue. Baina horretarako, Batzar Orokorra egin ondoren, honako datu hauek eman beharko dizkiozue Federazioari: Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideen izen-abizenak (NANaren agertzen den grafia berarekin), helbidea eta NAN zenbakia. Era berean, lehenakari eta/edo idazkari karguak kide berrien esku gelditzen badira, horien NANaren fotokopia ere beharko da.

Bestalde, jakinarazpen honekin batera, eskatu nahi diegu estatutuak berritzeko izapideak hasi gabe dituzten IGEei –gure datuen arabera, 40 IGE dira– Federazioarekin harremanetan jar daitezela, izapide hori egiteko eman beharreko pausoen azal diezaieten.

## **2.- ESKOLA PUBLIKOAREN 18. JAIA**

Aurrez jakinarazi izan dugunez, Euskal Eskola Publikoaren Jaia Gipuzkoan egingo da, aurten. Bergaran, zehazki, ekainaren 7an. Jai hori dela-eta, ohi den moduan, hainbat material argitara emango ditugu publizitaterako (kartelak, esku orriak...), baita salmentarako materiala ere, jaia finantzatzeko behar den dirua biltzarren. Aurten, bi motatako materialak aterako ditugu:

- hiru motatako elastikoak: haurrentzakoak, unisex delakoa eta neska/emakumeentzakoak.
- Eskolako materiala: hiru neurritako koadernoak (A4, A5 eta A6) eta karpeta, 4 uztaiduna.

Berez, material hori **EZ** diegu IGE guztiei bidaliko, materiala salduz Jaiaren laguntzaile izan nahi dutenei baizik. Hori dela-eta, materiala saltzeko interesa duten IGEei eskatzen diegu jar daitezela Federazioarekin harremanetan, telefonoz (943 32 72 08, ROSA) edo honako helbide honetara e-maila igorritz: [rosa@baikara.org](mailto:rosa@baikara.org)

## **3.- BORONDATEZKO ASEGURUA**

Gero eta ugariagoak dira IGEek antolatutako jardueretako begiraleen egoerari buruzko galderak, eskola kiroleko taldeen entrenatzaileen egoerari buruzkoak batez ere. Gai honi dagokionez, gogorarazi nahi dizuegu badirela zenbait urte Federazioak aukera ematen duela begirale horien erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguru bat hartzeko. Honako hauek dira aseguru horretaz baliatzeko baldintzak, gaingiroki azalduta: ez edukitzea astean 5 ordutik gorako lanaldia eta beren zerbitzuen truke ordainsaririk ez jasotzea. Aseguruaren kostua urteko 7 bat eurokoa da, eta aseguru hitzartzeko, boluntariotzako kontratu bat sinatu behar dute begiraleak, IGEak eta BAIKARAK. Gure ustez, aukera bikaina da begiraleen egoera arautzeko eta haien eta IGEen arteko harremanaren nondik norakoak argitzeko.

Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Federaziora (943 32 72 08) eta hitz egin Imanolekin, edo bidali e-maila honako helbide honetara: [imanol@baikara.org](mailto:imanol@baikara.org)

## **4.- ESKOLA JARDUNALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Aurreko ikasturtearen amaieran, Arabako institutu batzuek DBHn jardunaldi jarraitua ezartzea proposatu zuten, baina Hezkuntza Sailak ez zuen proposamen horri buruzko inolako erabakirik hartu. Ikasturte honetan, berriro sortu da eztabaida, batez ere Bilboko La Peña auzoko Ibaizabal institutuan sortutako egoeraren ondorioz; institutu horretan, jardunaldi jarraitua ezarri dute, Hezkuntza Sailaren baimenik gabe. Oraingoan, Gipuzkoako IGEek ez dute gai honi buruzko zalantzarik edo eskaririk egin Federazioan, baina egokia iritzi diogu IGEei jakinaraztea indarrean dagoen araudiak gai honi buruz zer dioen, ikastetxeren batean eskola jardunaldia aldatzeko proposamenik eginez gero jakinaren gainean egon daitezkeen. 175/2007 Dekretuak, (Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzetako) Oinarritzko Hezkuntzako curriculumak ezartzen duenak, hauxe dio, hitzez hitz, 14. artikuluko 4. atalean: **“Eskola-egunek goizeko**

*eta arratsaldeko saioak izango dituzte. Asteko arratsalde bat irakasle guztien parte-hartzea eskatzen duten lanak egiteko erabiltzea baimendu dezake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, baina horrek ez du esan nahi ikasleen asteko ordutegia murriztu behar denik. Salbuespeneko arrazoiak beharko dira eskola-egunak beste modu batera antolatuzeko”.* Ikasturte hasieran Hezkuntza Sailburuordetzak bidali ohi dituen jarraibideen arabera, **iraila eta ekaina artean**, eta OOGak hala onartuz gero, **goizeko jardunaldi trinkoa ezar liteke**. Beraz, argi dago Hezkuntza Sailak onetsitako ezohiko egoerak gertatuz gero izan ezik, gaur egungo araudiari jarraituz ez dagoela ikasturte osorako jardunaldi jarraitua ezartzerik, eta ez dago aukerarik ere inolako jardunaldi aldaketarik eskatzeko izapideak egiten hasteko. Eskola ordutegiari dagokionez, ordutegia aldatzeko aukera soilik aurreikusten du (adibidez, eskolak hasteko edo amaitzeko ordutegia aldatzea, goizeko eta arratsaldeko eskola orduen banaketa aldatzea...), baina, horretarako, ezinbestekoa izango da OOGaren gehiengo absolutuaren onespina eta, kontsulta bidez, eskola komunitateko kideen (guraso, irakasle...) %80k oniritzia ematea, baita proposamenak eskola egutegiari buruzko araudi orokorrak zehazten dituen baldintzak betetzea ere.

Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), aukera dago egun batez jardunaldi jarraitua ezartzeko; arratsalde hori irakasleen formaziorako jarduerak gauzatzeko erabil daiteke. Arratsalde horrez gainera, OOGak erabaki lezake astean beste arratsalde batez eskolarik ez ematea. Baina erabaki hori hartzeko ikastetxeko OOGan ordezkartza duten estamentuetako bakoitzeko (gurasoak, ikasleak eta irakasleak) kideen bi herenen gehiengo kualifikatua behar da. IGEan gai honi buruzko inolako zalantzarik sortuz gero, jarri harremanetan Federazioarekin, eta hitz egin Garbiñe edo Imanolekin.

## **5.- HEZIBERRI EKIMENA: [www.heziberri.net](http://www.heziberri.net)**

HEZIBERRI lau euskal erakundek (Hezkuntza Administrarien Europar Foroa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Innobasque eta Jakiunde) antolatutako ekimen bat da, Euskadin hezkuntzari buruzko gogoeta egiteko xedea duena. Ekimenaren asmoa da gure herriak berrikuntzaren aldetik Europako erreferentzia izateko erronkari aurre egiteko behar duen hezkuntzari buruzko gogoeta, pentsamendu eta iritziak emateko gunea. Izan ere, gizarte berritzaile, sortzaile eta ezagutzaren gestioan aitzindaria eraikitzeko eginkizunarekin batera, gizarte bidezko, baketsu eta solidarioa ere sortu beharra dago, bertan herritar guztiak elkarrekin eta osasunez bizi daitezzen. Gure gizartea eraldatzea pertsona guztiei dagokien eginkizuna da, hezkuntza bezalaxe. Horregatik, askotariko ikuspegi, jarraera eta bizi proiektuen bidez adostu beharko dugu horretarako zer-nolako hezkuntza behar dugun: Zer gaitasun? Zer aldaketa egin behar dira hezkuntza sisteman, familietan, gizarte eragileetan?

Eztabaida sustatzeko eta iritziak biltzeko tarte berezia antolatu dute familientzat. Garrantzi handikoa da, beraz, espazio horretan parte har dezagun, gure seme-alabentzako zer-nolako hezkuntza nahi dugun jakinarazteko gainerako eragileei. Esteka honen bidez parte hartu ahal izango duzue: sendiaren ikuspuntuak ([www.heziberri.net/perspectivas\\_familia.php](http://www.heziberri.net/perspectivas_familia.php)).

## **6.- BESTE GAI BATZUK**

Artean erabaki gabe dauden gaiak buruzko berrikuntzarik ez dago:

- **Hizkuntza ereduaren erreforma:** Zenbait alderdik atzera bota zuten Hezkuntza Sailak prestatutako hasierako proposamena, eta azaroaren 13an beste zirriborro bat aurkeztu zen. Baina, kontuan hartuta Eusko Legebiltzarraren bilkurak bertan behera geldituko direla Gabonen ondoren, hauteskundeak direla-eta, ez dirudi hizkuntza ereduaren erreformari buruzko proposamen hori onartuko denik eta eztabaidarako prest geldituko denik; hortaz, 2009ko matxoko autonomia erkidegoko hauteskundearen ondorengo Legebiltzarrak jarraitu beharko du gaia lantzen. Edonola ere, bigarren proposamena eskuragarri duzue Baikararen webgunean ([www.baikara.org](http://www.baikara.org))
- **Eskola Mapa:** Aurreko otsailean onartu ziren eskola maparen proposamena lantzeko irizpide orokorrak, baina ez dugu honi buruzko beste jakinarazpenik jaso, harrezkero. Bere garaian egindako plangintzaren arabera, abenduan aurkeztu beharko litzateke proposamen zehatza, ikastetxez ikastetxekoa, eta hortaz, oraingoz, Hezkuntza Sailaren eskutik proposamenen berri jaso zain gaude.
- **Ikasleen betebeharrak eta eskubideak:** Oraindik ez dute argitara eman dekretu berria. Hezkuntza komunitatean interes handia sortu du gai honek; izan ere, ikastetxeetako bizikidetzan izango duen eraginaz gainera, kontuan hartu behar da aldaketa sakonak ekarriko dituela ikastetxeetako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiari dagokionez. Eta egoera horretaz baliatuta, araudi horretan beste atal batzuk egunerako proposamenak egin nahiko genituzke IGEek.

## **6.- ZUZENDARITZA BATZORDEKO BILERA:**

Datorren ostegunean, Azaroak 27, BAIKARAKo Zuzendaritza Batzordea bilera bat ospatuko du arratsaldeko 6,30etan Donostiako egoitzan.

Baso – Txiki, 36 – atzealde . 20015 Donostia

E-Mail: [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org)

Tel: 943 327208 Fax: 943 274 977

Web orria: [www.baikara.org](http://www.baikara.org)